

**ELGOIBARKO IZARRAREN**

# **Oinarri filosofikoak**



**ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA

## AURKIBIDEA

1. Sarrera moduan .....	3. or.
2. Atzera begirako errepasso txikia: .....	4. or.
a. 50 urteotan elkarteak lortu duena	
3. Egungo egoeraren deskribapena (2013): .....	7. or.
a. Elgoibarko Izarra	
b. Krisi ekonomikoa	
c. Egoera sozio-politiko berria	
d. Krisi soziala edo gizarte-aldaketa	
4. Egitekoa: .....	11. or.
a. Elgoibarko euskaltzaleen komunitatea osatzea	
b. Euskararen normalizazioan eragitea:	
▪ Motibazioa: euskalduntasuna sustatzea	
▪ Erabilera	
▪ Ezagutza	
c. Gure jardunbidean kontuan hartzeko printzipioak:	
▪ <i>Eragin</i> eta <i>izan</i> aditzen garrantzia.	
▪ Elkarlana, aliantzak, harreman-sareak eta lidergoa.	
▪ Herria eta nazioa, herri artetik edo bailaratik pasatuta.	
5. Izana: .....	16. or.
a. Gizarte-mugimenduaren ezaugarriak.	
b. Elkartearen zutabeak	
c. Elkartearen balioak	
6. Izena .....	20. or.
7. Parte-hartze militantea eta profesionala: .....	22. or.
a. Bazkide profesionalen profila.	
b. Lantaldearen profila	
8. Antolaketa-eredua .....	25. or.

## 1. SARRERA MODUAN

1990ean egin zuten moduan, 2014an ere, Elgoibarko Izarrak aurrera egingo du. Bai, 50 urteko jardunaren ondoren, Elgoibar euskaldunagoa izateko herri-ahaleginari eutsiko diogu. Izan ere, oraindik asko falta da Elgoibar euskalduna izateko, eta zeregin horretan Elgoibarko Izarra ezinbestekoa dela uste dugu.

Edozein prozesu kontzientek aurrera egiteko, hiru baldintza bete behar dira: nahi izatea, jakitea eta egitea. Nahi izatea da edozein prozesuren hasiera, eta, gurean, nahi dugu. Euskaldun izan nahi dugu, eta nahi dugu Elgoibarko Izarraren bueltan dagoen herri-ahaleginari eustea.

\*\*\*

Elgoibarko Izarraren etorkizuna jasotzeko ponentzia filosofikoa da esku artean daukazuna. Eta txostenaren azalean etorkizuna jasotzeko *oinarriak* jartzen badu ere, oinarriak ez ezik, zutabeak ere jaso ditugu.

Zergatik orain oinarri filosofikoen dokumentua?

- Osasuntsua delako noizean behin zertan eta zertarako dihardugun aztertzea. Elgoibarko Izarraren izaeraren eta egitekoaren gaineko gogoeta sakonik ez dugu egin 1990etik, eta 50. urteurrena mugarri paregabea begitandu zaigu horretarako.
- *Atzera begira, aurrera egiteko* balorazio-lanean errebisatzeko, aztertzeko, zuzentzeko edo hobetzeko hainbat puntu identifikatu ditugulako.<sup>1</sup>
- Euskara-elkarteen mugimendua, oro har, gogoeta-prozesuan dagoelako.

---

<sup>1</sup> Hona balorazio-lanean identifikatutako hutsune batzuk. Ez dugu nahi beste lortu: elkartea herriratzea; diskurtso propiorik osatu eta zabaltzea; elkartearen izena eta izana transmititzea; bazkideen parte-hartzea sustatzea; herriko elkarte eta erakundeekin behar beste harremantzea; elkarteko eta herri mailako hizkuntz komunitateak artikulatzea; diru-laguntzen mendekotasunetik ihes egitea ...

## 2. ATZERA BEGIRAKO ERREPASOA

Elgoibarko Izarraren etorkizunaren gainean jardungo dugu dokumentu honetan, baina aurrera begirako urratsak ematen hasi aurretik, atzeari erreparatuko diogu, gainetik bada ere.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak 1963ko martxoan sortu zuten herriko hiru euskaltzalek (Felix Etxeberria, Jesus Larrañaga eta Sabin Osoro). “*Erderiak ez ittotzeko*” sortu zen, sortzaile baten hitzetan; “*euskeriak Maltzagaraiño juteko ere balio ez zabala pentsatzen zebenian batzuek*. “*Munduari bueltia emateko ilusiuarekin*” sortu zuten elkarteak, eta urtebete lehenago jaio zen ikastolari laguntzea zen Elgoibarko Izarraren helburu eta zeregin nagusia; horretara bideratu zituen lehen etapako proiektu gehientsuenak. Ikastolako umeei zuzendutako proiektuak ziren gehienak. Proiektu eta egitasmo guztiak zerrendatzeak luze joko luke, baina garrantzitsuenak edo eragin handiena izan zutenak ekarriko ditugu hona:

- Ikastola (1962)
- Dantza-taldea (1964)
- Txistu-eskola (1965)
- Gau-eskola (1966, gau-eskola, berez, 1956an sortu bazen ere)
- Odeoiako jaialdia (1966)
- Aubixa aterpetxea (1973)
- Bertsolaritza (1981)
- *Etxepe* eta *Etxegiña* lehiaketak (ipuinak eta bertsopaperak)
- Udaleko Euskara Batzordea (1987)
- Bestelakoak: mendi-irteerak, ballet-eskola, ingeles-eskola, berbenak, danborrada, *Txitxilibakio* aldizkaria, edo sentsibilizazio-kanpainak dira Elgoibarko Izarraren lehen etapako beste programa eta jarduerak batzuk.

Hasierako 20 urteak oso emankorrak izan ondoren, 80ko hamarkadako lehen urteetan Elgoibarko Izarraren jarduna eta eragina jaisten edo gutxitzen hasi zen. Elkarteak sortutako proiektuek bakoitzak bere bidea hartu zuen, eta seme-alabek etxetik alde egin ondoren bakarrik geratzen diren gurasoen antzera geratu zen Elgoibarko Izarra: barruak hustuta eta Elgoibar euskalduntzeko ideiarik eta energiari gabe. Gainera, orduko pare bat bazkide-eragilek aitortu digutenez, “*alderdi politikoei lotutako militantziak gaina hartu zion euskararekiko militantziari. Ordura arte euskaldunok ez geneukan markarik edo kolorerik, baina alderdi politikoak sortu zirenean, euskaltzaleok alderdi politikoek markatutako koloreen arabera banatu ginen; gainera, euskaltzale dinamikoek alderdi politikoetan sartu ziren*”. Egoera berri hartan, zein zen Elgoibarko Izarraren egitekoa?

Hala, 1990eko Batzar Orokorrean, bazkide batzuek Elgoibarko Izarra bertan behera lagatzeko proposamena jarri zuten mahai gainean. Elgoibarko Izarrak eman zuela bere onena eta elkarteak ateak ixteko ordua iritsi zela. Baina, zorionez, bizpahiru bazkidek Elgoibarko Izarrari eutsi egin behar zitzaizola erabaki zuten. Elgoibar herri euskalduna izateko asko falta zela oraindik, eta lanean jarraitu beharra zegoela. Elgoibarko Izarrak eutsi egin behar zizola Elgoibar euskaldunagoa izateko herri-ahaleginari.

Elkarteari eustea erabaki zutenak elkarteko dinamizatzailerak izango zenarekin egon ziren. Hark bi urte eman zituen aurretik soziolinguistikaren gaineko informazioa eta formazioa jasotzen (*Adorez eta Atseginez Mintegian*), eta prest zegoen elkarte berrindartzeko proposamena lantzeko. Gainera, ezagutzen zituen Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) euskara-elkarteak zabalduko bide berriak, eta Elgoibarren ere antzerako zerbait egiteko proposamena jarri zuen mahai gainean 1990eko udan. Proposamena entzun eta aztertu ondoren, erantzuna baiezkoa izan zen, eta lanean hasteko erabakia hartu zen. Hala ekin zion elkarteak bigarren etapari.

Bigarren etapa ere emankorra izan da. Dedikazio profesionalari lekua egitea erabaki zen, eta hogeita bi urteotan hamaika proiektu-egitasmo jarri da martxan Elgoibar euskaldunagoa izateko helburuarekin. Ikus ditzagun esanguratsuenak eta eragin handiena izan dutenak:

- BARREN astekaria (1992)
- ElgoiBARREN.net (2006)
- Guren Bai hitzarmenak:
  - Elkarateak (1996)
  - Merkataritza (2002) eta ostalaritza (2007).
- Atxutxiamaiak (1995), *Kiribil* (2004), *Berbazulo* (2003), *Jolasian* (2011) eta *Beinke* bertso-eskola (2011)
- GAZ-T (1998) eta Kuadrillategi (2006)
- Udal ludotekaren eta gaztelekuaren kudeaketa (2007)
- Arigera (2000)
- Toletxe taberna (2000)
- Kulturgintza: idazlehiaketak, Kultur Errota, hitzaldi-zikloak, bertsolaritza ...
- Ohitura zaharrak: Sargoateko erromeria eta Santa Ageda (1994)
- Gure aurrekoei omenaldiak: Aita Agirre, Pako Juaristi, Gotzon Garate ...
- Nazio mailakoak: EGUNKARIA-BERRIA, Kontseilua, ikastolen aldeko jaiak, KORRIKA ...

### **a) 50 urteotan elkarteak lortu duena:**

Lan sakona eginda daukagu Elgoibarko Izarrak 50 urteotan egindako lanaren gainean, baina ez goaz dokumentu honetan daukagun guztia sartzera. Egindako balorazioaren laburpena da segidan datorrena. Zer lortu du elkarteak 50 urteotan?

- Elgoibartarren euskaltzaletasuna esnaraztea. Sortzaileen esanetan, Elgoibarko Izarrak esnatu zuen elgoibartarren euskaltzaletasuna. Lotan edo ezkutuan zegoena esnarazi edo bistaratu zuen. Hiru lagunek sortu zuten elkarte, baina elkarte sortu eta bi urtera 1.400 bazkide zituen Elgoibarko Izarrak.
- Desio baten inguruan jendea biltzea. Jendearen parte-hartzea eta inplikazioa, Elgoibar euskalduna(goa) izateko langintzan. Elgoibar euskalduna(goa) izateko herri-ahalegina izan da Elgoibarko Izarrarena, eta ahalegin horretan jende askok parte hartu du.
- Dozenaka proiektu prestatzea. Horietako batzuk, gainera, Elgoibarren izaera definitzen lagundu duten proiektuak izan dira. Ekintza solteak aparte lagata (kontatzeko baino gehiago direlako), 30 proiektu edo egitasmotik gora jarri ditu martxan Elgoibarko Izarrak 50 urteotan. Denek ez dute eragin bera izan, badakigu, baina asko eta asko gure herrian errotu dira; Elgoibarko parte dira.
- Euskalgintzari beste proiektio bat ematea: klandestinitatetik ateratzea. Aparteko meritua izan zuten 60ko hamarkadan euskalgintzan jardun zutenek. Egin ezin zena egitea lortu zuten. Gerora, zorionez, euskalgintza ezkututik ateratzea lortu zen eta gaur egun zeharo normala da, eta ondo ikusia dago, euskararen alde jardutea.
- Hiru hizkuntz faktoreetan izugarri eragitea. Aitatu berri dugu 30 proiektu-egitasmotik gora prestatu eta martxan jarri dituela elkarteak. Hiru hizkuntz faktore daude euskararen normalizazioan eragiteko (motibazioa, ezagutza eta erabilera), eta hiruhorietakoren batean eragiteko sortu dira proiektu eta egitasmo guztiak. Kasu askotan, gainera, faktore batean baino gehiagotan eragin dugu proiektu bakoitzarekin.
- Euskaldunen eta euskaltzaleen erreferente izatea. Bakarrik, hasieran, eta beste batzuekin batera gero. 1963an, elkarte sortu zenean, Elgoibarko Izarra izan zen herriko euskaldunen eta euskaltzaleen izarra edo iparra. Gure izateko borondatearen aterpea edo arnasgunea. Gerora, zorionez, arnasgune edo aterpe gehiago izan ditugu euskarak eta euskaldunok Elgoibarren, baina Elgoibarko Izarra beti izan da erreferenteetako bat.
- Elgoibar Euskal Herriko euskalgintzaren aitzindarietako bat izatea. Elgoibar euskalgintzaren mapan kokatu eta mantentzea. 1963an, Elgoibarko Izarra aitzindaria izan zen; oso elkarte gutxi zeuden gureak betetzen zuen funtzioa betetzen. Gerora, bigarren etapan, elkarte euskalgintzaren mapan berriz ere kokatzea lortu genuen, eta gaur egun Elgoibarko Izarrak bere lekua eta eragina dauka euskara-elkarteen mugimenduan.
- Elkarteak, finean, euskaldunon egoera duela 50 urte baino askoz hobea izatea lortu du; normalizatorako bidean aurrerapauso handiak ematea. Badakigu oraindik asko falta dela Elgoibar euskalduna izateko, baina egindako bidea oso luzea izan da, Elgoibarko Izarrari esker, besteak beste.

### 3. EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA (2013)

Fase berriaren abiapuntua zein den hobeto ulertzeko, hainbat puntu jorratuko ditugu atal honetan. Lau dira hona ekarri ditugunak:

- Elgoibarko Izarraren egungo egoera.
- Krisi ekonomikoaren eragina.
- Egoera sozio-politiko berria.
- Krisi soziala edo gizarte-aldaketa.

#### a) Elgoibarko Izarraren egoera:

Elgoibarko Izarraren iragana erakusten digun atea itxi, eta gaur egungo egoerari erreparatuko diogu segidan. AMIA txiki bat prestatu dugu, gainetik bada ere, egoera zein den irudikatzeko.

Etorkizunari begira jarri gara, batez ere, eta, ondorioz, etorkizunari begira dauzkagun aukerak eta indarguneak identifikatzen saiatu gara. Era berean, elkarteak dauzkan ahuleziak eta mehatxuak ere jaso ditugu, oztopoak non dauzkagun jakiteko.

AMIA	Ahuleziak	Indarrak
<b>Barne-analisia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bideragarritasun ekonomikoa zalantzan.</li> <li>▪ Lantalde profesional handiegia, daukagun egoera ekonomikorako, eta kohesio falta.</li> <li>▪ Bazkide-eragileen parte-hartze baxua.</li> <li>▪ ...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ 630 bazkideren babeseta batzuek aktibatzeak aukera.</li> <li>▪ Aurrera egiteko borondatea.</li> <li>▪ Bazkide batzuen inplikazioa.</li> <li>▪ 50 urteko esperientzia eta ibilbidea.</li> <li>▪ Langile-taldearen profesionaltasuna.</li> <li>▪ Indarrean dauzkagun proiektuak.</li> <li>▪ ...</li> </ul>
	Mehatxuak	Aukerak
<b>Kanpo-analisia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Krisi ekonomikoa.</li> <li>▪ Krisi soziala.</li> <li>▪ ...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Udalaren babeseta.</li> <li>▪ Topagunearen aterpea.</li> <li>▪ Herriko eragileekin izandako harreman positiboak.</li> <li>▪ Zerbitzugintzaren aukerak.</li> <li>▪ Egoera sozio-politikoak.</li> <li>▪ ...</li> </ul>

Laburbilduz, 50 urteko lan emankorraren ondoren, aurrera egiteko borondatea eta energia duen elkarteak da Elgoibarko Izarra. Baina badaki aurrera egiteko hainbat kontu zuzendu eta hobetu behar dituela. Elkartearen egoera ekonomikoa ez da ona, baina Elgoibarko Izarraren proiektuek onarpen zabala dute herrian. Alde horretatik ondo posizionatuta dago, bai herrian eta baita euskara-elkarteen mugimenduan ere. Alabaina, gure ustez Elgoibarko Izarra bere lekua berreskuratu behar du Elgoibarko gizartean, eta lehen etapan izan zuen zentralitatea hartu beharko luke. Laburbilduz, orain arte egindako ibilbidea aintzat hartu eta ziklo berri bati ekiteko garaia iritsi zaio Elgoibarko Izarrari.

## **b) Krisi ekonomikoa:**

Beharbada, ez da unerik egokiena horrelako prozesu bati ekiteko. Gizarteak bizi duen krisi ekonomikoa larria da, eta elkarteren desioek eta beharrek diru faltarekin talka egin dezakete behin baino gehiagotan. Edo, akaso, krisi ekonomikoa aukera bat bezala uler dezakegu, eta bazkide batek esan duen moduan, *“garai bateko militantismoa berreskuratu egin beharko dugu, halabeharrez. Krisi ekonomikoak horretara derrigortuko du euskalgintza. Baina krisiaren abaguneak ere aprobetxatu egin behar ditugu, eta horien artean auzolanaren balioa azpimarratu nahi dut”*.

Edota Albert Einstein-ek esandakoari ere erreparatu ahal diogu: *“Krisia pertsoneri eta herriei gerta dakiekeen gauzarik ederrena da. Sormena larriminetik elikatzen baita, eguna gau ilunetik sortu ohi den moduan. Krisiaren baitan sortzen dira asmamenak, deskubrimenduak eta estrategia handiak (...). Norberaren porrotak krisiari leporatzen dizkionak bere talentuari egiten dio eraso. Benetako krisia gaitasun faltarena da (...). Krisirik gabe ez dago erronkarik, eta erronkarik gabe bizitza aspergarria da, agonia motel etengabea. Krisiaren zurrumbiloan norberaren onena azaltzen da. Amai dezagun benetan mehatxatzen gaituen krisi bakarrarekin: egoera garaitzeko dugun kemen faltarekin, hain zuzen ere”*.

Aukera bat izan daiteke, bai, baina krisi ekonomikoa (orokorra) eta elkarreak azken lauzpabost urteetan izan duen gainbehera ekonomikoa arazo handiak izan daitezke egin nahi duguna gauzatzeko. Dirua behar dugu buruan duguna egiteko, diru dezente, gainera, eta diru falta arazo larria izan daiteke.

1963an ekin zioten moduan, beharbada, diru eta baliabide gutxirekin baina ilusio eta energia askorekin sar daiteke Elgoibarko Izarra hirugarren etapan. Baina orduan zerotik abantatu ziren, ezer ez zegoen tokian hasi ziren eraikitzen. 50 urte geroago, egoera bestelakoa da. Etxearen zati bat jasota dago, langileak dauzkagu, eta ezinezkoa da dena bota eta berriz zerotik hastea. Baina eraikita daukagunari eustea ere ez da erraza, eta ondo asmatu beharko dugu zer egin.

## **c) Egoera sozio-politiko berria:**

Elgoibarko Izarra 1963an sortu zen, frankismoa bizirik zegoela eta alderdi politikoak sortu aurretik. Euskaltzaleak ez zeuden kolore politikoen arabera banatuta, eta hori euskalgintzaren mesedetan izan zen, Kuriosoa begitandu zaigu kontu honen gainean sortzaileetako batek egindako gogoeta: *“Guk elkartia sortu eta egindako lana egiñ ez bagendu, eta euskeria politikuen eskuetan geratu izan balitz, akabo! Alderdi politikuak sortu ziranerako euskalgintzaren arrastua zabaldua zaguan Elgoibarren, eta beti errespetatu debe”*.

Baina dena ez zen arrosa kolorekoa izan. Izan ere, alderdi politikoak sortu zirenean, orduko pare bat bazkide eragilek aitortu digunez, *“alderdi politikoei lotutako militantzia politikoak gaina hartu zion euskararekiko militantziari. Ordura arte euskaldunok ez geneukan markarik edo kolorerik, baina alderdi politikoak sortu zirenean, euskaltzaleok alderdiek markatutako koloreen arabera banatu ginen; gainera, euskaltzale dinamikoenak alderdi politikoetan sartu ziren”*.



Zein da gaur egongo egoera? Egia da euskaldunok batzen gaituena (euskara) banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa dela? Guk hala beharko lukeela uste dugu, eta horregatik emango diogu segida duela 50 urte ekindako herri-ahaleginari.

ETAk jardun armatua betiko utziko duela esan zuenetik, badirudi aro eta egoera berri batean dagoela Euskal Herria; hala aitortzen dute behintzat ia eragile sozio-politiko guztiek. Aro edo etapa berriak eragiten al dio euskalgintzari? Orain arte, herri hau, aukera politikoak tarteko, hamaika zatitan banatuta egon da, eta egoera horrek euskalgintzari ere eragiten zion. Elgoibarren bertan ere, duela 20 urte ikastolaren publikazioaren inguruan sortu zen eztabaidak eragin zuen etenik euskaltzaleen artean. Badirudi fragmentazioa(k) txikitzeko bidean goazela, eta asmatu beharko genuke hori era positiboan kudeatzen, euskalgintzaren mesedetan. Bizikidetzaz hainbeste berba egiten den garai honetan, euskara ere gakoetako bat izan daitekeela uste dugu.

Beraz, badirudi EHko eta herriko testuinguru sozio-politiko berriak aukera berriak eskain diezazkiokeela euskalgintzari. Beharbada, ez da momenturik txarrena Txepetxek esandakoari erreparatzeko. Gaztelaniaz dago, baina merezi duela uste dugu:

*"Lo euskaldun aun no ha alcanzado una formulación política independiente. Construirla es la llave maestra de la salida de la situación. Y para construirla los euskaldunes deben abandonar las falsas perspectivas de formulaciones políticas que los atomizan, los disuelven y los suplantán, y **unirse en una nueva perspectiva que antepone a cualquier objetivo el restablecimiento de la nación EUSKALDUN**. Sólo a partir de él, y ya desde el euskara, es posible para los euskaldunes desdoblarse en opciones políticas diferentes, del signo que sea, pero siempre con la conciencia firme de la unidad en lo euskaldun. (...)*  
*Para el euskara el problema no es de alternativas (estado vasco / estado español), sino de prioridades (vivir / no vivir). El euskara necesita vivir, garantizar su supervivencia. Y para ello por el momento la única alternativa consiste en que los euskaldunes, compactándose de nuevo, conduzcan a su euskara desde la sub-vivencia hasta la vivencia más plena."*

#### **d) Krisi soziala edo gizarte-aldaketa:**

Azken 50 urteotan asko aldatu da gizartea, bai Euskal Herrian eta baita hemendik kanpo ere. Harremantzeko modua asko aldatu da, eta horrek ezinbestean eragin dio gizartea antolatzeke moduari. *Atzera begira, aurrera egiteko balorazioan bazkide batek esana da "gizartea asko aldatu da. Gero eta indibidualistagoak gara, eta ez dakit herri-mugimendu sendo bat birsortzeko moduan gauden".*

Badakigu gizartea ez dela orain dela 50 urte bezala antolatzen, ez eta antolatuko ere. Baina horrek ez dakar, derrigorrez, antolamendu eza. Herri txikia da gurea, alde batetik, eta horrek harreman-sare sendoa mantentzen lagundu digu. Harreman-sare horrek posible egiten du elkarrekintza. Herrigintzak eta gurea bezalako herri-mugimenduek oinarrian duten auzolanerako ateak zabalik ditugu, beraz. Beste alde batetik, ezin ditugu ahaztu teknologia berriek eskaintzen dizkiguten bitarteko aberatsak ere. Indibidualistagoak izango gara agian gure egunerokotasunean, baina ezin ukatu harreman-sare berri emankor eta askotarikoak ditugula eskura gure jardunerako. Horietara ezinbestean jo beharra daukagu herri-mugimendua bilbatu eta ehuntzeko. Zuku handiagoa atera behar diegu sare sozialei, e-postari, blogei, bideoei ...

Alabaina, badaukagu gizarte-antolamenduaren ideiarri hautsa kendu beharra. Egoera asko aldatu dela kontuan hartu gabe itsu-itsuan jarduteak frustrazioa baino ez digu ekarriko. Beraz, gure herri-mugimendua osatzen duen masa humanoaren azterketa sakon batek asko argituko digu egungo gizarteak behar duen antolatzeko eredia nolakoa den. Eta hori aurreikusita lortuko dugu gizartearen aldaketak onartu eta horiek gure mugimenduaren mesedetan jartzea.

Iraganean gauzak nola egiten ziren badakigu, baina horretan pentsatu ordez, etorkizunean nola egingo ditugun pentsatzen jartzea dagokigu. Lehengoari bizkarra eman gabe, baina ezin dugu pentsatu hura zenik modu bakarra eta onena. Gure gizarte-mugimendua egituratu eta antolatzeko modu berriak esploratu behar ditugu, iraganean trabatuta geratu nahi ez badugu.

## 4. EGITEKOA

Atal honetan Elgoibarko Izarraren etorkizuneko egitekoa edo misioa aztertuko dugu. Hemendik 50 urtera Elgoibar herri euskalduna izan dadin elkarteak, gure ustez, zer egin behar duen da aztertuko duguna.

Hasteko, *Atzera begira, aurrera egiteko* dokumentuan jendeak esan digunaren laburpen edo entresaka txiki bat ekarriko dugu denon bistara, jendearen buruetan zer dagoen apur bat ikus dezagun.

Idea orokorreari lotuta:

- *“Funtzio lorgarriak eta egingarriak jarri behar ditugu. Elgoibarko Izarrak jakin egin behar du zer egin ahal duen, eta, batez ere, zer egin ezin duen identifikatu behar dugu”.*
- *“Elgoibartarron euskalduntasuna sustatu behar du elkarteak. Eta, kontuz, euskalduntasuna ez da euskara jakitea. Hori baino sakonagoa da”.*
- *“Kultur elkartearen izaera berreskuratu behar du. Kulturgintza sustatzea tresna ezin aproposagoa da gure herria euskalduntzeko bidean”.*
- *“Elgoibarko euskaldunon komunitatea saretzea edo ehuntzea izan behar da EIren funtzio nagusia. Bakoitzak bere aldetik dihardugu, eta hola ez goaz inora”.*
- *“Elgoibarko euskaldunon bizinahia eta ilusioa piztea eta sustatzea izan behar da EIren zeregin nagusia. Bilguneak edo elkarguneak sortu, kontzientzietan eragin, formazioa sustatu ...”.*

Atal edo sektore konkretuei lotuta:

- *“Familiatan eragiten saiatu. Gurean Bai-familiak aktibatu”.*
- *“Elgoibarko berbetia indartu”.*
- *“Elkarte eta erakundeetan eragiteko ahalegina berreskuratu”.*
- *“Erdaldunekin eta etorkinekin lan egiteko moduan al gaude? Eta euskararikasleekin?”*
- *“Bertsolaritza aktibatu, euskalduntasuna eta komunitate-zentzua sustatzeko”.*
- *“Aisialdian lan asko egin dugu azken urteotan, baina proiektu horrek proiektu orokorraren mesedetan jardun behar du aurrerantzean. Bai egitasmoak eta baita aisialdiko agenteak ere (zuzendariak, hezitzaileak ...), helburu nagusiaren mesedetan jarri behar ditugu. Hezitzaileak proiektuan integratu behar dira. Ez dira aisialdiko langileak, proiektukoak baizik”.*

Bazkide eta eragileen ahotik jaso dugunaren entresaka azaldu ondoren, ikus dezagun zer den guk proposatzen duguna:

**Elgoibarko Izarraren egitekoa Elgoibar euskalduntzea da (1). Baina gure lan-eremua ez da Elgoibarrera mugatuko. Elkartearen azken helburua euskararen herria saretzea denez, euskara-elkarteen mugimenduko kide izango gara, eta mugimenduari gure onena eskainiko diogu.**

Elgoibar euskalduna izateko ahaleginean, bi lan-lerro edo zeregin nagusi izango ditugu:

- a) Elgoibarko euskaltzaleon komunitatea saretzea eta osatzea. Elkartearen inguruan lehenik, eta herri mailakoa ondoren.
- b) Euskararen normalizazioan eragitea, horretarako Txepetxek identifikatutako hiru hizkuntz faktoreetan eraginez: motibazioa, erabilera eta ezagutza.

#### **a) Elgoibarko euskaltzaleon komunitatea saretzea edo osatzea:**

Elgoibarko euskaltzaleon komunitatea saretzen joatea eta osatzea izango da elkartearen lehen zeregin nagusia. Elgoibarren euskararen eta euskaldunon bizitzaz arduratuko den komunitatea osatu eta artikulatzea, hain zuzen ere. Txepetxen esanetan, hizkuntza bat ez da galtzen azken hiztuna hiltzen denean, hizkuntza horretako komunitatea desegituratzen denean baizik. Hizkuntzari bizia emateko, beraz, ezinbestekoa da hizkuntz komunitatea artikulatu eta osatzea. Gure kasuan, Elgoibarko euskaltzaleen hizkuntz komunitatea saretu eta osatu behar dugu. Eta gero eta gehiago izateko bokazioarekin ekin behar diogu. Taldearen edo komunitatearen zentzua berreskuratu behar dugu, euskararen normalizazioa ez baita norbanakoen guda pertsonala.

Bi planotan landuko dugu hizkuntz komunitatearen kontzeptua:

- Elkartearen planoan: Elgoibarko Izarraren inguruan komunitate sendo, jantzi eta egile-eragile bat osatu behar dugu, eta komunitate hori izango da Elgoibar euskalduntzeko motorra.
- Herriaren planoan: elkartearen bueltan hizkuntz komunitate sendo bat osatzen goazen heinean, herri mailako hizkuntz komunitatea ere artikulatzen joan behar dugu. Horretarako, han eta hemen eragiten saiatuko gara, mikro-komunitateak osatu ondoren errazagoa izango baita herri mailakoa osatzea.

*(1) Elgoibar euskalduntzea da Elgoibarko Izarraren misioa edo egitekoa. Baina, zer esan nahi du horrek? Gure helburua Elgoibar euskalduntzea dela diogunean, zer ari gara esaten? Denok gauza bera pentsatzen eta ulertzen al dugu? Hona guretzat zer esan nahi duen *Elgoibar euskalduntzeak*. Hiru ikuspegi erreparatuko diegu, guretzat *Elgoibar euskalduntzeak* zer esan nahi duen azaltzeko:*

- Hiztunaren planoari dagokionez: Helburua da elgoibartar gehientsuenak euskaraz jakitea (bakoitzak dituen hizkuntz beharrak euskaraz ondo betetzeko adinako mailarekin), euskaraz jardutea (bakoitzak bere hizkuntz funtzio gehientsuenak euskaraz betetzeko gaitasunarekin) eta bere baitan euskararekin gustura sentitzea (euskaldun sentimenduarekin).
- Hizkuntzaren ikuspegiari dagokionez: Elgoibarren eguneroko funtzio guztiak (edo gehienak) euskaraz bete ahal izatea, edo euskaraz ere betetzeko aukera izatea
- Hizkuntz komunitatearen ikuspegiari dagokionez: Elgoibartarrok hizkuntz komunitate bat osatzea, eta komunitate horren erdigunea euskaldun osoek eta euskarak betetzea. Hiztun-tipologia guztiek tokia izango duten komunitatea osatu nahi dugu, erdaldunek ere bai, baina komunitate horretan tipologia bakoitzaren tokia zein den argi izanda.

## b) Euskararen normalizazioan eragitea:

Esan bezala, hiru dira Txepetxek euskararen normalizazioan eragiteko identifikatutako hizkuntz faktoreak: motibazioa, erabilera eta ezagutza. Guk motibazioan eta erabileran egin eta eragingo dugu, batez ere, ezagutzaren ontzia alde batera lagako ez badugu ere.

**b.1. Motibazioan eragitea:** Euskalduntasuna sustatzea izango da gure zeregina. Motibazioari lotutako lan-eremua izango dugu hau; bihotzak ukitu nahi dituena. Euskara eta euskalduntasunarekiko sentimendua landuko dugu. Izan ere, Iñaki Seguiolak idatzi eta guk bat egiten dugun moduan, “*euskalduna euskara(z) egiten duena da; euskarak egiten duena*”, eta ez euskara duena edo dakiena bakarrik (egiteko jakitea ezinbestekoa dela badakigun arren). (2)

Zelan landu eta zabalduko dugu euskalduntasuna bazkideen eta herritarren artean?

- *Kulturgintza sustatuz:* Euskara eta euskal kultura, biak dira euskaltasunaren oinarri, eta kulturgintzari behar besteko garrantzia eman nahi diogu. Kulturgintza parte-hartzailea sustatu nahi dugu, bazkideak eta herritarrak protagonista izango dituena.
- *Informazioa eta formazioa zabalduz:* Informazioak eta formazioak energia dakar, eta energiak mugimendua. Zenbat eta informazio-formazio gehiago, orduan eta botere handiagoa.
- *Jaia eta gozamina uztartuz:* Txepetxi lehen irakurri diogun moduan, euskaldunon etorkizuna dago jokoan. Beraz, egingo duguna ez dugu egingo aspertuta gaudelako edo beste zereginik ez daukagulako. Euskaldun bizi nahi dugulako baizik. Baina gure jarduna plazerak igurtzi behar du. Jendea erakarri behar dugu, baina ez euskararen alde dihardugulako bakarrik, egiten dugunak bizipoza ematen digulako baizik. Bete egiten gaituelako. Euskaldun egiten gaituelako.

Beraz, momentuz, hiru bidezidor horiek hartuko ditugu bazkideen eta herritarren artean euskalduntasuna sustatzeko. Baina bidezidorrak ez ditugu guk bakarrik zabalduko. Kasu batzuetan gu izango gara bideak zabaltzeko ardura hartuko dugunak, baina beste bi aukera ere aurreikusten ditugu:

- Guk sortu edo prestatutako ekimenak.
- Mugimenduak sortu eta prestatutako ekimenak.
- Mugimendutik kanpo prestatzen edo antolatzen diren ekimenak.

(2) *Euskaldun* kontzeptuaren definizioa: Seguiolaren iritziz, eta guk bat egiten dugu haren iritziarekin, euskara jakiteak bakarrik ez gaitu euskaldun egiten (orain arte askok horrela pentsatu arren). Euskaldun izaera edo euskalduntasuna euskararen erabilerak ematen digu; euskara(z) egiteak edo euskaraz jarduteak, alegia. Izan ere, bada makina bat lagun euskara jakin arren euskalduna ez dena. Euskalduna euskara jakin eta euskara(z) egiten duena da. Eta ez dugu ahaztu behar euskara(z) egiten dugunean, euskarak gu egiten gaituela (euskaldun). Seguiolaren planteamendu honen atzean, *-dun* atzizkiaren bi esanahiak daude:

a) *-dun*: bizardun (bizarra duena): *eduki* aditzari lotuta.

b) *-dun*: jostun (josten duena): *jardun* aditzari lotuta.

Gure kasuan, euskaldun hitza bigarrenari lotuta dago; euskaraz jarduten duena da euskalduna, eta ez euskara duena. Hori bai, bistan da euskaraz jarduteko ezinbestekoa dela euskara edukitzea.

**b.2. Erabilera sustatzea:** Elgoibarren euskarari funtzio eta esparruak eskaintzea izango da atal honetako gure zeregina. Euskararenak direnak sendotuz eta, ahal den neurrian, euskararenak ez diren funtzioak irabaziz.

- Gaur egungo erabilera-proiektuak: haur eta nerabeen aisialdia eta hedabideak lantzen eta sendotzen segituko dugu.
- Etorkizuneko erabilera-proiektuak: ahal dugun neurrian, erabilera sustatzeko eremu berriak landu nahi ditugu, eta 2014an erabakiko dugu zein eremutan hasiko garen lanean.

**b.3. Ezagutzari** dagokionez, ez du lehentasunik izango gure egitekoen artean, baina faktore hori lantzen dihardutenekin elkarlanean jarduteko prest egongo gara ezagutzan eragiteko (eskolekin, *Berbazulo*; euskaltegiekin, *Tertuliak* ...).

### c) Gure jardunbidean kontuan hartzeko printzipioak:

Gure misioaren edo egitekoaren gaineko hiru printzipio nabarmenduko ditugu segidan. Gure proiektuak eta kudeaketa-planak prestatzerakoan aintzat izango ditugun hiru printzipio:

#### c.1.) *Eragin eta izan* aditzen garrantzia.

- **Egin:** Aurreko urteetako lanari erreparatzen badiogu, aditz nagusia *egin* izan dela konturatuko gara. Horretarako, ez dago zenbat proiektu eta egitasmo prestatu ditugun ikustea baino. Badira, dudarik gabe, besteetan eragiteko proiektuak tartean (*Gurean Bai* hitzarmena da adibide garbi bat), baina Elgoibarko Izarrak, batez ere, bere proiektuak prestatzen eta martxan jartzen inbertitu ditu bere indarrak eta baliabideak. Aurrerantzean ere segitu beharko dugu gureak prestatzen, baina gure egiteko bakarra hori ez dela jakinda.
- **Eragin:** Beharbada, *eragin* izango da Elgoibarko Izarraren hirugarren etapako berba klabeetako bat. *Eragin* besteek ere egin dezaten. *Eragin* mikro-komunitateak osatzeko. *Eragin* proiektuak elkarren artean prestatzeko. *Eragin*, herri mailako euskalgintza sartzeko. Elkarrekin bere zereginak izango ditu, dudarik gabe, baina orain arte ez bezala, gure bulegotik irten eta besteengana joango gara, besteekin nahastuko gara. Guk bakarrik ezin dugulako. *Eragin*-eremua ahalik eta gehien zabaltzen saiatuko gara, bai pertsonengana iristeko eta baita eremu sozial eta politikoetan eragiteko.
- **Izan:** Asko da egin duguna, baina ez dugu Elgoibarren euskararen orainaz eta etorkizunaz arduratuko den hizkuntz komunitatea artikulatu eta trinkotu. Asko egin dugu, izugarri, baina EGIN duguna baino askoz gutxiago GARA. Beraz, hirugarren etapan izateari garrantzia handiagoa emango diogu, eta Elgoibarko Izarrak Elgoibarko euskaltzaleon komunitatearen zentralitatea berreskuratu behar du. Zenbat eta komunitatea handiago eta trinkoagoa osatu, orduan eta gehiago eta errazago egin eta eragingo dugu. Egin eta eragiten dugunaren neurrian izango gara.

### c.2.) Elkarlana, aliantzak, harreman-sareak, eta lidergoa:

- **Elkarlanak, aliantzak eta harreman-sareak:** Orain arte baino pisu handiagoa izan behar dute aurrerantzean. Bakarrik baino urrutiago iritsiko garelako. Besteekin batera gehiago eta indartsuagoak izango garelako. Besteekin batera lehenago eta errazago lortuko dugulako Elgoibar euskalduna(goa) izatea.
- **Lidergoa:** Hirugarren etapako zereginetako bat eragitea izango dela esaten dihardugu; bai herrian eta baita herritik kanpo ere. Horrekin batera, asko da elkarlanean eta sare-lanean egin beharko duguna. Horrek denak trakzio-lana eskatzen du, bateren batek lidergoa hartzea, eta Elgoibarko Izarra prest egongo da funtzio hori betetzeko, gainontzeko agente eta eragileek elkarteari lidergoa onartzen badiote behintzat (izan ere, liderrak alferrik dira jarraitzailerik ez badago). Elgoibarko Izarra, era berean, prest azalduko da trakzio-lan horretan lidergoaren funtzioa uzteko, besteren batek lidergo hori hartzeko borondatea azaltzen badu. Hori bai, trakzio-lanak ez du agintaritza esan nahi. Liderrak bidea markatuko du, norabidea, eta ingurukoak bide hori hartzera animatu, baina bidea denon artean egin behar dugu, bakoitzak bere ardurak hartuta, denon artean gurea egiteko. Beste zenbaitetan, gainera, ingurukoei aitortuko diegu gu gidatzeko ardura. Izan ere, gehiago gustatzen zaigu lidergo konpartitua.

### c.3) Herria, euskal herriak eta Euskal Herria:

Euskara-elkarteen mugimenduak Bilbon egindako azken kongresuan onartu zuen moduan, gurea nazio mailako mugimendua ere bada. Herrietan dago mugimenduaren oinarria eta benetako arrazoiak, baina nazio mailan ere egin eta eragin nahi dugu. Izan ere, euskal herriek osatuko dute Euskal Herria, baina euskal herriek Euskal Herriaren teilatua edo aterpea behar dute. Herritik naziora iristeko, baina, beste herri batzuekin eraiki eta partekatu beharko ditugu gure asmoak eta proiektuak. Saiakera horiek indarrak metatzeko izango dira, sinergiak aprobetxatzeko. Herrietako pintzel finekin batera, herri arteko edo bailarako pintzel lodiagoak ere beharko ditugu Euskararen Herria marrazteko.

Bailarako saiakerak herrietako indarrak metatzeko izango dira. Bailarako sinergiak aprobetxatzeko (proiektuak, langile profesionalak, aurrekontuak, baliabideak, formazioa, aisialdi eskaintzak, kultur jarduerak, jaiak, zerbitzuak ...). Eta baita bailarako izana lantzeko ere. Egin ez ezik, izan ere egin behar dugu bailaran.

Hona bazkide batek gai honen gainean egin digun oparitxoa: *“Herri bakoitzak bere euskara-elkartea behar du? Eutsi ahal diegu egitura guztiei? Zergatik ez ditugu proiektu edo egitasmo batzuk bailara mailan partekatzen? Gainera, ez du ezinbestean bailara mailan izan behar, bi edo hiru herriren artean ere konpartitu ahal ditugu proiektu edo egitasmo jakin batzuk”*. Hori bai, proiektu eta egitasmo horien finantzazioak denen artekoa, eragile guztien artekoa, behar du izan.

## 5. IZANA:

### a) Gizarte-mugimenduaren ezaugarriak:

Hirugarren etapari herri-mugimendu moduan ekitearen aldeko apustua egingo dugu. Euskara-elkarte baten aterpean osatuko den herri-mugimendua izango da gurea. Gizarte-mugimendu baten ezaugarri nagusia gizartea aldatzeko prozesuan parte hartzeko borondatea da, eta euskarak eta euskaldunok gure herrian bizi dugun egoera aldatzeko eta hobetzeko helburua dauka guk saretu nahi dugun herri-mugimenduak. Nagusiki gaztelaniaz bizi garen euskaldunok osatzen dugu, neurri handi batean, Elgoibar, eta hori aldatu nahi dugu. Euskara(z) egin eta euskarak egiten gaituen Elgoibar ezagutu nahi dugu, eta horretarako ekingo diogu hirugarren etapari.

Bestalde, gizarte-mugimenduak garaipenak lortzeko daude. Ez dute aldarrikapenera edo salaketara mugatu behar. Errealitatea aldatzeko dira, eta, horretarako, mugimenduko kideak jantzi egin behar ditugu, formazioa sustatuz, ilusioa sortuz, eta norbanako kementsuak sortuz, besteak beste. Biktimismoa alde batera laga eta egoera aldatzea gure esku dagoela sinistu behar dugu; botere hori badugula ohartu. Guretzat euskara garrantzitsua bada, gu garrantzitsuak gara euskararentzat, eta guk hartu behar dugu aurrea, besteek noiz egingo duten zain egon beharrean.

Ekintza edo ekimena da gizarte-mugimenduaren funtsa, baina ekimenak arrazoitutakoa izan behar du. Jakin egin behar dugu zer eta zertarako egiten dugun, itsuan edo aldameneko herrian ere egiten dutelako jardun beharrean.

Jendea da gizarte-mugimenduaren osagaia eta aliatua. Gure kasuan, bazkideak dira gure mugimenduaren arima eta akuilua. Euskara-elkarteen mugimenduak onartu berri duen moduan, gure mugimendua euskaltzaleena izango da, euskal komunitatearen aurrean positiboki posizionatzen direnen mugimendua. Elgoibarko euskaltzaleen topagunea izango da gurea. Euskaraz ez dakien jendea ere izan daiteke noski mugimenduko kide eta bidelagun, baldin eta gure elkartearen helburu eta jardunbidearekin bat egiten badu. Gure lana jarrera positibo hori indartzea izango da; hau da, orain euskaraz ez dakienak etorkizunean euskaraz jakin eta erabiltzeko pausoak ematera bultzatzea.

Finean, lan profesionala eta borondatezko parte-hartzea uztartuko dituen herri-mugimendua da gurea. Norbanakoz osatu, baina elkarte, alderdi eta instituzioekin elkarlanean jardun nahi duena. Eta, ezinbestean, elkarte sendo eta jantzia osatu beharko dugu, herrian hartu nahi ditugun zereginak ondo bete nahi baditugu.



## b) Elkartearen izana definitzen duten zutabeak:

Honako hauek izango dira eraiki nahi dugun gizarte-mugimenduari eutsiko dioten zutabe nagusiak:

- **Pentsamendua eta diskurtsoa:** Pentsamendu eta formulazio teoriko baten bueltan eraiki behar dugu elkartea. Garenaren eta egiten dugunaren formulazio teorikoa behar dugu. Gure izaeraren arrazoia azalduko duen pentsamendua. Horrekin batera, Elgoibarko Izarraren diskurtsoa landu eta zabaldu behar dugu. Hau da, buruan daukaguna herriari (Elgoibar, bailara, Euskal Herria...) helarazi behar diogu, bazkideek, herritarrek eta ingurukoek Elgoibarko Izarra non kokatzen den eta zer iritzi duen jakiteko.
- **Formazioa:** Mugimenduaren bigarren zutabea jakintza eta formazioa izango da. Jantzitako jendea behar dugu mugimenduan; ilusioa eta pentsamendua uztartuko dituen jendea. Informazioa energia da; informazioak mugiarazten gaitu. Txepetxek zioen moduan, sentimendua pentsamendurekin igurtziz gero, ilusioa eta mugimendua sortzen da. Egiten duguna zergatik egiten dugun jakin behar dugu, zertarako egiten dugun.
- **Komunikazioa:** Komunikazioak eta transmisioak etengabekoa izan behar du, komunitate bat osatu eta gero eta gehiago izan nahi badugu. Informazioaren eta komunikazioaren gizartean bizi gara, eta guk ere asmatu egin beharko dugu zer, zeini eta zelan komunikatu. Etorkizuneko komunikazioak bi norabide izango ditu:
  - Barrura begirakoa: elkartearen baitako hizkuntz komunitatea trinkotzeko.
  - Kanpora begirakoa: gero eta gehiago izateko.
- **Autonomia baina elkarlanerako bokazioarekin:** Elgoibarko Izarra elkarte autonomia izango da. Bazkideena da eta bazkideek hartuko dituzte erabakiak. Hori bai, elkarlanerako eta aliantzetarako bokazioarekin ekiten dio hirugarren etapari. Herri mailako *gu* txikiak batu eta ahalik eta GU handiena osatzeko bokazioarekin. Elgoibarren euskaraz bizi nahi dugunon hizkuntz komunitatea osatzeko bokazioarekin, alegia.
- **Euskararen eta euskaldunon beharrizanetara jarria:** “*Batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa delako*” izan zen bigarren etapari ekin genionean zabaldu genuen lelo edo ideia nagusietako bat, eta hirugarren etaparako ere tinko eutsi nahi diogu ideia horri. Pentsaera eta ideologia askotako herritarrak bildu nahi ditugu euskararen aldeko herri-ekimen. Elkartearen pentsamendurekin eta ekintzarekin bat egiten duen edozeinentzat irekia izango da, eta 1990ean moduan, batzen gaituenak (Elgoibar herri euskalduna izateko nahiak) banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa dela sinetsita ekingo diogu hirugarren etapari.

### c) Balioak:

- **Parte-hartzailea:** Esan dugu mugimendu baten muina jendearegan eta jendearen parte-hartzean dagoela. Beraz, hori da sustatu eta lortu behar duguna. Jendeak konpromisoa hartu behar du mugimenduarekiko (bakoitzak berea). Jendeak proiektuan inplikatu behar du (bakoitzak bere neurrian).
- **Demokratikoa:** Zereginak banatzea eta erabakiak ahalik eta bazkide gehien artean hartzea eta adostea izango da gure balioetako bat, baina erabakiak informazioa dagoen tokietan hartu behar dira. Informazio-formazio nahikoa dagoen tokietan hartuko dira erabakiak.
- **Erakargarria eta gardena:** Parte-hartzea sustatu nahi badugu, jendea erakarri egin behar dugu. Mugimenduak erakargarria izan behar du jendearentzat. Jendeari arrazoiak eman behar dizkiogu mugimendura etortzeko. Horretarako, besteak beste, elkarteak gardena izan behar du; ezin da lau horma sendoren atzean ezkutatu. Jendeak jakin egin behar du elkarte zertarako dagoen eta zer egiten duen, eta ate eta leihoak irekita ikusi behar ditu, hala nahi duenak sartzeko aukerarekin.
- **Ilusio sortarazlea:** Ilusioa izango da gure mugimenduaren erregaietako bat. Ilusioa sortu behar dugu, konpromisoa eta parte-hartzea sustatu eta mugimendua indartzeko. Ilusioa bi norabidetan landuko dugu: barrura begira, elkartean daudenak gustura egoteko; kanpora begira, gurera jende berria erakartzeko.
- **Errealista:** Proposamen errealistak eta bideragarriak egin behar ditugu, helburu mailakatuen araberrako egitasmo eta kudeaketa-plana prestatuz. Gainera, funtzioen helburuak ere ulergarriak, neurgarriak eta lorgarriak izan beharko dira.
- **Egunerokotasunari lotuta:** Egunerokotasunean oinarritu nahi dugu gure jarduna. Urtean zehar etenik izango ez duena. Lineala, behetik gorakoa, txikitik handirakoa. Gora-behera handirik gabe eta urtean pare bat kolpetan kontzentratuko ez den dinamika.
- **Gaztea:** 50 urte bete ditu elkarteak, eta behar beste betetzeko bokazioarekin ekingo diogu hirugarren etapari. Baina urteak bete nahi baditugu, elkarte gazte mantendu behar dugu. Mugimenduak urteak bete ditu, eta urteak bete behar ditu aurrerantzean ere, baina ez du zahartu behar. Horretarako, gazteak erakarri behar ditugu mugimendura. Gurea ez da gazte-mugimendu bat, baina tentuz jokatu behar dugu belaunaldien arteko etenik egon ez dadin. Gazteak eta ez hain gazteak elkarrekin arituko dira mugimenduan. Amaitzeko, izugarri garrantzitsua begitantzen zaigu belaunaldi ezberdinen arteko harreman eta elkarlana lantzea. Izugarri garrantzitsua begitantzen zaigu nagusien jakituria eta esperientzia gazteenen ilusio eta energiarekin uztartzeko aukera baliatzea.

- **Ausarta eta irudimentsua:** Ausartak izan behar dugu. Gauza berriak sortu eta probatzeko ausardia izan behar dugu. Orain arte ondo egin denari eutsiko diogu, baina euskalgintzan (herrigintzan) jarduteko modu berriak irekitzeko prestutasuna eta borondatearekin. Jon Sarasuari sarri entzun diogun moduan, jarraidura eta irekidura uztartu behar ditugu. Aurretik datorrenari kasu egin behar diogu (jarraidura), baina bide eta ate berriak zabaltzeko prestutasuna izan behar dugu (irekidura).
- **Positiboa eta eraikitzailea:** Euskaldunon aldeko dinamika ezin dugu gurutze-bide moduan ulertu. Une zailak eta gogorrak izango dira, baina gure jardunak positiboa eta eraikitzailea izan behar du. Positiboan jardungo dugu, eta eraikitzea izango da gure zeregin nagusia. Horrek ez du esan nahi behar denean salaketarik edo kritikarik egingo ez dugunik, baina gure bokazioa eraikitzea izango da.
- **Euskaldun eleanitzak:** Euskararen eta euskaldunon aldeko herri-ekimena da gurea, eta euskaratik eta euskaraz jardungo dugu, nahiz eta euskara ez den beste hizkuntza batzuk ere erabili beharko ditugun geure helburuaren mesedetan.
- **Tokikotasunaren aldekoa:** Tokikotasuna edo gertutasuna da gure mugimenduaren balioetako bat. Herrietatik sortutako mugimendua da, herritarrengandik hurbil dagoena. Mugimenduaren azken helburuak nazio mailan badaude ere, gure proiektu eta egitasmoen oinarrian Elgoibar eta elgoibartarrak daude.
- **Baikortasun kritikoa:** Gizarte mugimendu batek lau jarrera desberdin hartu ditzakeela dio teoriak. *Baikortasun inozoa* da lehenengoa: egoeraren irakurketa baikorregia egiteari deitzen zaio horrela, zailtasunak eta mugak kontuan hartu gabe lan egiteari. Bigarrena, *baikortasun kritikoa* da: egoerarekiko kritiko izanda ere, etorkizuna modu baikorrean eraikitzeko hautua egiten duenaren jarrera. Hirugarrena, *ezkortasun aktiboa* da: egoerarekiko ikuspegi ezkorra izanda, egoera aldatzeko ahaleginean diharduenarena. Eta laugarrena eta azkena, *ezkortasun morbosoa*: egoeraren irakurketa ezkorrak egoera aldatzeko ezer ez egitera eramaten duena. Lau horien artean *baikortasun kritikoa* da gure mugimenduak hartu beharreko jarrera.

## 6. IZENA:

“*Izena eta izana, biak behar!*” dio esaera zaharrak, eta izana aztertu ondoren, izena jarriko diogu erabaki dugun izanari. Biak behar ditugulako etorkizuna jasotzeko.

1963an *Elgoibar'ko Izarra* (orduko idazkera errespetatuz) izena jartzea erabaki zuten. Sortzaileekin ere egon gara izen horren zergatiaz galdetzeko, eta orduko kontu batzuk ahanzturaren zakura botata badituzte ere, badirudi Elgoibarko euskaldun eta euskaltzaleen iparra izan nahi zuelako jarri ziotela izen hori elkarteari. Euskaldun izateko bidean lagungarri izan zedin.

1990ean, elkarteak bigarren etapari ekin zionean, euskara-elkarteen mugimenduan sartu zen Elgoibarko Izarra (eta lan egiteko moduak aldatu ere bai, neurri handi batean), baina izena mantentzea erabaki zen, aldatzeko proposamena mahai gainean jarri bazen ere.

*Atzera begira, aurrera egiteko* dokumentuan jaso ditugun iritzien arabera, hirugarren etaparako ere jendea *Elgoibarko Izarra* izena mantentzearen aldekoa da. Inork ere ez digu esan izena aldatzea komeni denik. Izenari dagokionez, bistan da jendea jarraiduraren aldekoa dela.

Izenaren bigarren partean, ordea, aldaketak datoz. Baina izen osoa zein izango den azaldu aurretik, atzera begira jarriko gara elkartearen izenaren iragana hobeto ulertzeko.

Elgoibarko Izarra, *kultur elkarte* moduan sortu zen 1963an. Elgoibarren euskararen alde lan egiteko kultur elkarte zen. Hala ere, garai hartako paperetan ez pentsa horrelakorik azaltzen denik. Bitxikeria moduan, elkartearen sortu zeneko estatutueta datorrena ikusiko dugu:

*Art. 1º.- Se constituye en Elgoibar, con domicilio en la calle San Francisco nº 24, el Centro Cultural Recreativo denominado “ELGOIBAR´KO IZARRA (Estrella de Elgoibar), formando una gran familia integrada por niños, jóvenes y adultos que mediante un esfuerzo aunado conseguir una elevación cultural y moral de todos y de los primeros en especial”.*

*Art. 3º.- Para una mayor eficacia de su labor, la Asociación de dividirá en secciones que en principio serán las siguientes:*

- 1º.- Educación y enseñanza.*
- 2º.- Artes y costumbres*
- 3.- Diversión y esparcimiento.*

Ikusten duzuen moduan, hor ez dio, inondik inora, elkartearen benetako helburua herrian euskara sustatzea zenik.

1991n, Elgoibarko Izarrak euskara-elkarte moduan ekin zion bigarren etapari, AEDK 1983an zabaldutako bidean. Hala ere, *kultur elkartea* etiketa ez zuen aldatu, nahiz eta kulturgintzari baino euskararen normalizazioari eragiten saiatu den elkartea.

2014tik aurrera ere, euskara-elkarteen sarean segituko dugu. Euskara-elkarteen Topagunean gaude 1996tik, eta bertan segituko dugu, besterik erabakitzen ez den bitartean. Mugimenduak 2012ko azaroan Bilbon izandako Kongresuan erabaki zuen moduan, Topagunea gure izenaren parte izango da aurrerantzean. Ondorioz, 2014tik aurrera ***Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea*** izango da elkartearen izen osoa.

Euskaltzaleon edo euskaldunon topagunea izan behar dugun eztabaidatzen luze eta sakon jardun ondoren, gureak euskaltzaleon elkartea edo topagunea izan behar duela erabaki dugu. Hau da, elkarreak bere buruari jarri dion helburu nagusiarekin bat egiten duen herritarren topagunea da gurea, nahi euskaraz ez dakien jendea egon kideen artean.

Euskaratik eta euskaraz funtzionatuko du Elgoibarko Izarrak, baina behar eta dakigun beste hizkuntza erabiliko ditugu gurera gero eta jende gehiago hurbil dadin. Gure komunitatearen erdigunea euskarak eta euskaldunok beteko dugu, baina gaur euskaldunak ez direnak bihar gurera erakartzeko bokazioarekin jardungo dugu lanean. Gure komunitateko parte izan nahi eta bertan gustura sentitzen diren guztientzat izango delako Elgoibarko Izarra.

## 7. BORONDATEZKO PARTE-HARTZEA ETA BAZKIDE PROFESIONALAK

Mugimenduaren muina ukituko dugu atal honetan. Izan ere, ez dago gizarte-mugimendurik herritarren presentziari eta parte-hartzerik gabe. Aurretik esan dugun moduan, jendea da mugimenduaren altxorrik garrantzitsuenak; jendearen inplikazioa eta parte-hartzea da mugimenduari zentzua emango diona; jendearen konpromisoak eta parte-hartzeak sortuko du mugimendua. Beraz, gurea euskalgintzaren aldeko herri-mugimendua izango bada, ezinbestean lortu beharko dugu jendearen konpromisoa eta parte-hartzea.

Gure proposamena azaltzen hasi aurretik, ikus dezagun *Atzera begira, aurrera egiteko* dokumentuan gai honen inguruan esandakoaren laburpen bat:

- *“Elgoibarko Izarrak euskararen berreskurapenerako gizarte-prozesu kontziente bat garatu nahi badu, lan-metodologia aldatu beharko du. Modu parte-hartzailea garatu behar du, eta gizarte-ahalegin moduan ulertu beharko da”.*
- *“Bazkideen artean mugimenduarekiko sentimendua landu behar dugu. Hala ere, militantzia berreskuratzea zaila dela onartu behar dugu, eta horren arabera erabaki estrategiak. Bazkideen egitekoa ondo definitu behar dugu”.*
- *“Daukagun bazkide-sarearen diagnosis sakona egin behar dugu. Zer nahi dute bazkideek? Zergatik dira elkarteko bazkide? Zer eskatzen diote elkarteari? Zer emateko prest daude?”*
- *“Bazkideak ez ditugu militantziaz bakarrik erakarri behar, `euskarak edo elkarteak behar zaitu!` edo antzerakoekin. Zergatik ez abantaila ekonomiko-kultural moduan ere planteatu?”*

Batzuek bazkideen eta herritarren konpromisoa eta parte-hartzea lortzea zaila ikusten badute ere, guk jendea euskararen aldeko mugimenduan inplikatzeko apustua egingo dugu. Elgoibarko Izarra gizarte-mugimendua izatea nahi dugu, eta gizartea aktibatzeke apustua egingo dugu; eta baita hori lortzeko bideak eta estrategiak prestatu ere.

Beraz, borondatezko lana eta lan profesionala uztartuko dituen herri-mugimendua izango da gurea. Hori bai, borondatezko lanari dagokionez, bereziki zaindu eta sustatuko dugu bazkideen parte-hartzea. Elkarte bazkideena da eta elkartearen norabidea bazkideek erabakiko dute. Hori horrela izan dadin, bazkideen parte-hartzearen sistema mimoso diseinatu eta hori betetzeko konpromisoa hartu dugu.

Lan profesionalari dagokionez, berriz, argi daukagu eutsi egin behar diogula. Hori bai, *Atzera begira, aurrera egiteko* balorazio-txostenean jasota geratu den moduan, langileek pisu handiegia hartu dute elkartearen, eta horren gainean hausnarketa egin dugu. Bazkide profesionalak ugaritzen joan diren heinean, bazkide militanteen funtzioa eta parte-hartzea gutxitzen joan dira, eta Elgoibarko Izarraren azken urteetako dinamika bazkide profesionalen eskuetan eta arduraren egon da, nagusiki. Hori kezkatzeko modukoa dela iritzi diogu, gizarte-mugimendua izan nahi badugu.

Joxemi Zumalabe Fundazioa herri-mugimenduaren inguruan aritu izan da beti lanean, eta azken urteotan gizarte-mugimenduetako militantzia-ereduak sakon aztertzen dihardute bertako lagunek. Besteak beste, beraiek esana da gizarte-mugimendu bateko liberatuak, bere lana edozein dela ere, izan beharko lukeela gizarte-mugimenduaren mesedetan militanteak aktibatzeke ardura maila bat. Horren segidan, aztertu dituzten mugimenduak kontuan izanda, kalkulua ere atera dute: haien esanetan, liberatu bakoitzeko 8-10 militante aktibo beharko lituzke mugimendu osasuntsu batek. Guk ez dugu zenbaki-apusturik egingo, baina bidea hori dela uste dugu. Parte hartzeaz eta elkarlanaz dihardugunean, eta lan profesionala eta borondatezkoa uztartu behar ditugula aipatzen dugunean, horixe da esan nahi duguna. Amaitzeko, gizarte-mugimendu bateko langile profesionalak bere zeregin zehatzak izango ditu, baina ezin du ahaztu lan espezifikoekin batera gizarte-mugimenduren mesedetan jardun behar duela une oro. Eta jakin behar du, baita ere, parte-hartzearen eta konpromisoaren eredu izan behar duela.

Ikus dezagun jendeak gai honen gainean esandako hainbat kontu:

Profesionaltasunari lekua egiteari dagokionez:

- *“Dedikazio profesionala beharko da hirugarren etapari ekitea erabakitzen bada, baina bazkideen potentzialtasuna ere aprobetxatu behar da”.*
- *“Langile profesionalak beharko dira, eta, gainera, zaila ikusten dut militantzia aktibatzea”.*

Elkarteko langile profesionalen profilari dagokionez:

- *“Lantalde profesionalaren erdigunea elgoibartarrek bete behar dute”.*
- *“Langile alaiak behar ditugu etorkizunerako”.*
- *“ Langile profesionalen artean ilusioa eta motibazioa piztu behar ditugu”.*

Esan bezala, hirugarren etapan ere jardun profesionala mantentzearen aldekoak gara. Elgoibar euskalduna(goa) izateko ahaleginean, dedikazio profesionala beharrezkoa dela irizten diogu. Ezinbestekoa ere bai, herri mailako euskalduntze-erritmoari eta -intentsitateari eusteko. Eta baita proiektu batzuk martxan jarri eta handitzeko ere.

### a) Bazkide profesionalen eta lantaldearen profila:

Hona hirugarren etapako Elgoibarko Izarrako bazkide profesionalen profila edo bete beharreko ezaugarriak:

- Elkartearen pentsamendu, helburu eta dinamikarekin bat egin behar du: Elkarte honetako kide izateko elkartearen helburu eta dinamikarekin bat egin behar dela esan badugu dokumentuan zehar, langile profesionalen kasuan ere ezinbestekoa izango da baldintza hori betetzea. Eta elkarteko bazkide ere izan beharko du, langile profesionala izateko.
- Euskalduntasuna: Euskalduntasuna da herrian zabaldu nahi duguna, eta hori zabaltzea bada gure zeregina, langile profesionalak eredu izan behar dute; euskalduntasuna transmititu behar dute. Beraz, langile profesional baten egokitasuna baloratzerakoan, bakoitzaren euskalduntasun-maila ere aztertuko da (edo langile horrek euskalduntasunaren iturritik edateko daukan prestutasuna).
- Proiektuko profesional-militantea izateko borondatea: Gurea ez da langileak, besterik gabe, behar dituen enpresa bat. Gurea gizarte-mugimendu bat da, eta langile militanteak behar ditu. Dedikazio profesionalarekin batera borondatezko jarduna eskaintzeko prest dauden langileak. Langile militantearen ideia edo kontzeptua baztertzeko eskatu du bateren batek *Atzera begira, aurrera egiteko* dokumentuan, baina gu mantentzearen aldekoak gara.
- Elgoibarkoa, ahal bada: Elgoibarko Izarra Elgoibarko euskaltzaleen topagunea izango da. Beraz, elgoibartarrek osatuko duten herri-mugimendu baten aurrean gaude. Langile profesionalak ere, ahal den neurrian, Elgoibarkoak izatearen aldekoak gara.
- Formazio nahikoa, soziolinguistikoa eta teknikoak: Beren lana edo zeregina behar bezala betetzeko maila duten langile profesionalak behar ditugu. Ikuspegi soziolinguistikoari dagokionez, langile bakoitzak berari dagokion arduraren edo funtzioaren araberrako formazio-maila izango du, eta langile guztiek izango dute gutxieneko formazioa (edo informazioa). Formazio teknikoari edo profesionalari dagokionez, berriz, langile bakoitzak berari dagozkion ardurak ondo betetzeko maila izan beharko du (edo ikasteko prestutasuna).
- Izaera eta jarrera: elkarteko bazkide profesionalak elkarteari izendatu dizkiogun ezaugarriak eta balioak izan behar dituzte. Ezaugarri eta balio guztiak pertsona bakarrean biltzea ez da erraza, baina langileek ere elkartearen izaera izan behar dute; oinarrizkoenak bai behintzat. Elkarreak langile parte-hartzaileak behar ditu, ekimentsuak, beren emana zeregin profesionalera bakarrik mugatuko ez dutenak; elkarreak langile positiboak behar ditu, baikorrak baina kritikoak, ilusioa sortu eta ingurukoei transmititzeko gauza direnak; elkarreak langile ausartak behar ditu, sortzaileak, urteak izan arren, zahartuko ez direnak. Eta hori horrela izan dadin, elkarrea bera (guztion artean) lanketa positibo horren sustatzaile, motorra, irakaslea eta laguntzailea izango da.



- Elkarteko bazkideak, ahal bada: Langileak aukeratzekoan elkarteko bazkideek lehentasuna izango dute. Herri-mugimendua da gurea, herritarrek eta, batez ere, bazkideek osatuko dutena, eta, ahal den neurrian, langileak bazkide izan beharko du.

Ezaugarri eta balio horiek orokorrak dira. Gero, lanpostu bakoitzaren aurrean, aztertu egin beharko dugu zein irizpidek hartzen duen pisu handiagoa.

## **b) Lantaldearen profila:**

Elkarteko langileen profila ez ezik, lantalde profesionalaren profila ere markatu dugu. Garrantzitsua begitandu zaigu lantaldeak, talde moduan, izan behar dituen ezaugarriak ere identifikatzea. Hauek dira etorkizuneko lantaldeak izan behar dituen ezaugarriak:

- Elkarteko lantaldea da: Elgoibarko Izarrako langileak elkarteko edo mugimenduko langileak dira. Edozein proiektutan lan egiten dutela ere, elkarteko langileak dira, , eta Elgoibarko Izarrako lantaldea osatzen dute.
- Kohesionatua: Lantaldea komunitate edo unitate bakar moduan egon behar du egituratuta. Lantalde bakarra dago Elgoibarko Izarran, lantalde hori proiektuetan eta egitasmoetan sailkatuta badago ere.
- Elkarlana: Elkarlana izango da lantaldearen oinarrietako bat. Bakoitzak bere ardura eta lan espezifikoak izango ditu, baina lantaldea beti egongo da elkarlanerako eta batak besteari laguntzeko prest. Langile bakoitzak bere lanak egingo ditu eta lantaldeak denonak direnak (“*bakoitzak urraturik berea, denon artean geurea*”).
- Konprometitua: Bazkideen eta herritarren konpromisoa eta parte-hartzea sustatzea baldin bada gure mugimenduaren erronka nagusietakoa, elkarteko langileek eta lantaldeak izan behar dute konpromisoaren eta parte-hartzearen eredu. Lantalde konprometitu eta parte-hartzailea behar du elkarrekin. Konpromisoak eta parte-hartzeak elkarrekin edo mugimenduari lotuta egon behar du, baina, eta ez proiektu edo egitasmo jakin bati bakarrik.
- Eredu: Elkarrekin bere buruari jarri dizkion ezaugarrien eta balioen eredu izan behar du lantaldeak. Elkarteko lantaldeak elkarrekin izanaren eta egitekoaren ispilu izan behar du.

## 8. ANTOLAKETA EREDUA

Atal honetan antolaketa-ereduaren filosofia jasoko dugu; ideia eta irizpide nagusiak. Gero, ideia horiek aintzat hartuta, Plan Estrategikoan hurrengo hiru urteetarako antolaketa-eredu zehatza jasoko dugu, organigrama eta organo bakoitzaren funtzioak, funtzionamendua eta erabaki-ahalmena zehaztuz.

Ikus ditzagun zein diren antolaketa-ereduari lotutako printzipioak:

- Gurea elkarte izango da; bazkidez osatutako elkarte.
- Elkarte bazkideena izanik, bazkideak dira mugimenduko protagonistak. Elkartearen dinamikari bazkideek eutsi behar diote, eta haiek izan behar dute protagonista nagusiak. Bazkideen parte-hartzea eta konpromisoa dago gure mugimenduaren oinarrian, eta bazkideek lan-batzorde guztietan parte hartuko dute.
- Aurretik ere esan dugu elkarteak dedikazio profesionala ere behar duela. Ondorioz, bazkideen baitan bi parte-hartze mota izango dira:
  - Bazkide militanteak.
  - Bazkide profesionalak.
- Batzuen eta besteen funtzio- eta lan-banaketarekin asmatzea izango da mugimenduaren arrakastaren giltzetako bat, baina elkartearen muinean bazkideen parte-hartzea eta konpromisoa sustatzea dagoela kontutan hartuta. Hau da, borondatezko langileak sustatzea da gure balioetako bat.
- Erabaki ahalmena bazkideena izango da. Ondorioz, erabaki-organo edo –gune guztietan parte hartuko dute bazkide militanteek (bazkide profesionalekin batera, batzuetan, eta bakarrik, beste batzuetan). Erabakiak hartzeko orduan informazioa eta formazioa ezinbestekoak direla onartu dugunez, erabaki-organoetan dagoen jendeak informazioa eta formazioa izan behar du.
- Elkartearen baitako erabaki-ahalmena edo erantzukizuna graduatua izango da, horretarako apropos prestatuko dugun organigrama aintzat hartuta. Organo bakoitzak bere funtzioak eta erabaki-ahalmena izango du (ikus organigrama Plan Estrategikoan).

